



EBAZPENA, 2024ko urriaren 18koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2024-2025 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2024ko maiatzaren 14ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituen (Ikerketa Orokorra).

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Ikerketa Zuzendariak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen lehenengo berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2024-2025 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen bigarren berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2024-2025 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen hirugarren berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2024-2025 ikasturterako, honako hauek adierazita: ezarpen-zentroa, onuradun bakoitzak urteko ordainsari gordin gisa jasoko duen zenbatekoa, jardura uzteagatiko kalte-ordain gisa jasoko duen zenbatekoa eta zentro bakoitzak dagozkion lan-kontratuak finantzatzeko jasoko duen zenbatekoa.

Laugarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2024ko maiatzaren 14ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Bostgarrena.- 2024ko maiatzaren 14ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 18an.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea